



ERREKTORETZA-TALDEAK ETA HEZKUNTZA SAILAK EZ DUTE INOLAKO BORONDATERIK EHU-KO IRAKASLE ORDEZKOEN EGOERA KONPONTZEKO

Borondate ezaren ondorioz sindikatuok borrokan jarraitzen dugu eta bide judiziala ireki dugu. Gatazka kolektiboaren epaiketa gaur izango da

Ikasturte honetan mobilizazio kanpaina trinkoa izan dugu EHUn hainbat arazoei konponbidea bilatu nahian. EHUn bi greba egin ditugu eta Zerbitzu Publikoen hiru grebetan EHUrako aldarrikapenek berezko espazioa izan dute. EHuko langileok ditugun arazo guztien artean, ordezko irakasleen egoera jasanezina azpimarratu behar da. LAB, Steilas, CCOO eta ELA sindikatuok ordezko irakasleen lan-baldintzak hobetzeko egin genituen proposamenak EHuko zuzendaritzak erabat errefusatu zituen.

Eusko Jaurlaritzaren jarrera pasiboa ere onartezina da. Hezkuntza Sailak ez dio erantzun intersindikalak egindako bilera-eskaerari, hortaz, arazoa entzuteko eta konponbideren bat bilatzeko interesik ez duela erautsi digu.

EHUREkin lotutako gaiei dagokienez, prentsaren bidez baino ez dugu izan Hezkuntza sailburuaren berri. Joan den astean egindako adierazpenen arabera, ez du bere erantzukizuna aintzat hartzen, eta konponbidea Ministerioak duela aipatzen du behin eta berriro. Iragarri dute hedabideetan hurrengo urteetan irakasle laguntzaile doktore 150 lanpostu sortuko direla. Berria positiboa bada ere, egin behar zuten, baina neurri horrek ez du konponduko ordezko irakasleen prekarietate egoera, ordezkoak kontratatzeak ezinbestekoa izaten jarraituko baitu etorkizunean. Harrigarria da gai honetarako autogobernua ez defendatzea eta aplikatzea, ordezkoen lan-egoera hobetzeko erabil daitezkeen tresnak baititu Eusko Jaurlaritzak.

Ordezkoen gatazka bi arazo nagusik eragiten dute. Alde batetik, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoaren (USLO) irakurketa hertsia. EHUK eta Hezkuntza sailak interpretatzeten dute arduraldi osoko irakasleen ordezkoak partzialak izan behar direla ikerkuntza eta kudeaketa ezin dutelako egin. Haien irakurketa paragrafo horretara mugatzen da. Baina USLOk, berak ere ezartzen du salbuespen bat: lan horiek egin daitezke, irakaskuntzarekin lotuta baldin badaude. Horren arabera, LAB, Steilas, CCOO eta ELA sindikatuok uste dugu ordezko langileak lanaldi osoan kontratatu daitezkela irakasle ordezkoek irakaskuntzari lotutako ikerkuntza eta kudeaketa lanak egiten baitituzte. Gainera estatuko beste unibertsitate batzuk horrela egiten dute, adibidez Granadako Unibertsitatea, Eta hemen, EAEn, lan-ikuskaritzak bere txostenean argi utzi du ez duela konbentzitzen UPV/EHUrak interpretazioak, beste interpretazio posible batzuk daudela esan du eta epaitegietara joatera gonbidatu gaitu.

Beste aldetik, irakasle ordezko partzialen beste arazoa haien miseriazko soldatak da (400 eta 800 euro artekoak, arduraldiaren arabera). Haien soldata mugatuta dago ematen dituzten eskola kopurura eta tutoretzetara eta ez da aintzat hartzen klaseak prestatzeko, azterketak prestatzeko, lanak zuzentzeko, formaziorako, irakaskuntzaren kudeaketarako edota irakaskuntzari lotutako ikerketarako lan-orduak ere beharrezkoak direla. Eusko Jaurlaritzaren 41/2008 Dekretuak ahalbidetzen du ordezkoak klaseak emateko lan-esku merke moduan erabiltzea. Langile horien lan-baldintza prekarioez gain, sailen antolaketan



beste irakasleen gainzaman eta ikasleek jasotzen duten irakaskuntzaren kalitatean ondorio negatiboak dauzka.

Eusko Jaurlaritzak eskumen osoa du aipatutako dekretua aldatzeko, soldata duinak ezarri. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzak aldatu behar zuen 41/2008 dekretua USLOra egokitzeko, besteak beste, irakasle ordezkoen soldatak ezartzeko (gaur egun ordezko irakasleen soldata ez dago inon jasota; EHUK interpretatzen du "bitarteko irakasle kontratatu" figurarako definituta dagoena dela ordezkoei ordaindu behar zaiena, baina ez digu oraindik erakutsi eskatutako txosten juridikoa hori oinarritzeko).

Miseriazko soldatak jasotzeaz gain, ordezko irakasleek bosturtekoen eta seiurtekoen ebaluaziora aurkezteko eskubidea ere ukatzen zaie, nahiz eta Auzitegi Gorenak dagoeneko bi epai eman dituen eskubide hori aitortzen.

Askotan esan dugun moduan, arazo honen erroa EHUREN finantzaketa ez-nahikoan datza. Izan ere, gaur egun BPGren % 0,4 inguruan dago eta USLOren arabera 2030erako esleitu behar da BPGren % 1. Bitartean, ezin dugu utzi EHUREN finantzaketa ez nahikoa langileon lan eta bizi baldintzen kontura.

Bizi garen impasse honetan, LABek lan-gatazka kolektiboko demanda sartu zuen, eta STEILAS, CCOO eta ELAk, berretsi zuten lanaldi osoko irakasleak ordezkatzen lanaldi partzialeko ordezko irakasleak kontratatzera ez dela zuzenbidearen araberakoa argudiatuz. Gaur egingo da gai hori aztertzeko epaiketa eta esperantza osoa daukagu epaileak bat egingo duela eskatutakoarekin. Hala ere, tamalez bide judizialera iritsi behar izatea, administrazioaren borondate ezaren eredu argia da.

LAB, Steilas, CCOO eta ELA sindikatuok eskatzen diegu Errektoretza-taldeari eta Eusko Jaurlaritzari beraien erantzukizunak onartzea eta gaiari konponbide bat ematea. Ez dezatela beren erantzukizuna uko egin, eta arazoaren iturria USLOn bakarrik kokatu. Haien esku dago EHUKO hainbeste ordezko irakasleen prekariedad egoera latza konpontzea. Ez bada horrela jarraituko dugu borrokan.

Euskal Herrian, 2024ko apirilaren 16an



**EL EQUIPO RECTORAL Y EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN NO TIENEN
NINGUNA VOLUNTAD DE SOLUCIONAR LA SITUACIÓN DEL PROFESORADO
SUSTITUTO DE LA UPV/EHU**

**La falta de voluntad obligará a los sindicatos a mantener la lucha y ha abierto la vía judicial.
Hoy se celebra el juicio por el conflicto colectivo**

Este curso hemos tenido una intensa campaña de movilización en la UPV/EHU para buscar soluciones a diversos problemas. En la UPV/EHU hemos convocado dos huelgas y en las tres huelgas de Servicios Públicos las reivindicaciones para la UPV han tenido espacio propio. De todos los problemas que tenemos las y los trabajadores de la UPV, hay que destacar la insostenible situación del profesorado sustituto. Las propuestas que los sindicatos LAB, Steilas, CCOO y ELA hicimos para mejorar las condiciones laborales del profesorado sustituto fueron rechazadas de plano por la dirección de la UPV.

La actitud pasiva del Gobierno Vasco es inaceptable. El Departamento de Educación no ha respondido a la petición de reunión realizada por la intersindical, esto demuestra su falta de interés en escuchar el problema y buscar una solución.

En cuanto a los temas relacionados con la UPV/EHU, sólo hemos tenido noticias del consejero de Educación a través de la prensa. Según sus declaraciones de la semana pasada, evade su responsabilidad e insiste en que la solución la tiene el Ministerio. Han anunciado que en los próximos años se crearán 150 puestos de trabajo de Profesorado Ayudante Doctor. Aunque la noticia es positiva, era su obligación, y esta medida no resolverá la situación de precariedad del profesorado sustituto, y su contratación seguirá siendo necesaria en el futuro. Sorprende que no se defienda y aplique el autogobierno para este tema, ya que el Gobierno Vasco dispone de herramientas para mejorar la situación laboral del profesorado sustituto.

El conflicto del profesorado sustituto está causado por dos problemas principales. Por un lado, la lectura estricta de la Ley Orgánica del Sistema Universitario (LOSU). La UPV/EHU y el Departamento de Educación interpretan que los y las sustitutas del profesorado a dedicación completa deben ser contratados a dedicación parcial por no poder realizar ni investigación ni gestión. Su lectura se limita a ese párrafo. Pero la propia LOSU también establece una excepción: se pueden realizar estas funciones siempre que estén relacionados con la docencia. De acuerdo con ello, los sindicatos LAB, Steilas, CCOO y ELA entendemos que el personal sustituto puede ser contratado a jornada completa, ya que el profesorado sustituto realiza labores de investigación y gestión ligadas a la docencia. Además, otras universidades del estado lo hacen así, por ejemplo, la Universidad de Granada. Aquí, en la CAV, la inspección de trabajo ha dejado claro en su informe que no le convence la interpretación de la UPV/EHU, afirmando que hay otras interpretaciones posibles e invitándonos a acudir a los juzgados.

El otro problema del profesorado sustituto a parcial es su sueldo de miseria (entre 400 y 800 euros en función de la dedicación). Su salario está limitado al número de clases y tutorías que imparten sin tener en cuenta que también son necesarias horas de trabajo para la preparación de clases, exámenes, dirección de trabajos, formación, gestión de la docencia o investigación relacionada con la docencia. El Decreto 41/2008 del Gobierno Vasco permite utilizar al profesorado sustituto como mano de obra barata para impartir clases. Además de las precarias condiciones laborales de este personal, esto tiene consecuencias negativas en la organización de los departamentos.



Traduciéndose en una sobrecarga de los demás profesoras y profesores y afectando la calidad de la enseñanza que recibe el alumnado.

El Gobierno Vasco tiene competencia plena para modificar el citado decreto estableciendo salarios dignos. Es más, el Gobierno Vasco tenía que haber modificado el decreto 41/2008 para adecuarlo a la LOSU, entre otras cosas, para establecer los sueldos del profesorado sustituto. En la actualidad el sueldo de este colectivo no está contemplado en ningún sitio; la UPV/EHU interpreta que su sueldo es él que está definido para la figura de "profesorado contratado interino", pero aún no nos ha mostrado el informe jurídico solicitado para fundamentarlo.

Además de percibir salarios de miseria, también se les niega el derecho del profesorado sustituto a presentarse a la evaluación de quinquenios y sexenios, aunque el Tribunal Supremo ya ha dictado dos sentencias reconociendo este derecho.

Como hemos manifestado en numerosas ocasiones, la raíz de este problema radica en la insuficiente financiación de la UPV/EHU. De hecho, actualmente está en torno al 0,4% del PIB y según la LOSU hay que asignar el 1% del PIB para 2030. Mientras tanto, no podemos dejar que la financiación insuficiente de la UPV/EHU se solucione a costa de las condiciones laborales y de vida del personal.

En este impasse en el que vivimos, LAB interpuso una demanda de conflicto colectivo laboral que STEILAS, CCOO y ELA secundaron, en la que se denunciaba que la contratación de profesorado sustituto a tiempo parcial para sustituir al profesorado a tiempo completo no se ajusta a derecho. Hoy se celebra el juicio para tratar este asunto y esperamos que el juez se acepte lo solicitado. Lamentablemente, vernos obligados a llegar a la vía judicial, es un claro ejemplo de la falta de voluntad de la administración.

Los sindicatos LAB, Steilas, CCOO y ELA pedimos al equipo rectoral y al Gobierno Vasco que asuman sus responsabilidades y den una solución. Que asuman su responsabilidad y no sitúen la fuente del problema sólo en la LOSU. De ellos depende resolver la dura situación de precariedad de tantas profesoras y profesores sustitutos de la UPV/EHU. Seguiremos luchando hasta que lo hagan.

En Euskal Herria, a 16 de abril de 2024